

FUNTSEZKO ELKARTEA

Gure proiektua aurrera eramateko beharrezkoa da elkarte desberdinekin lan egitea eta harremanetan jartzea. Beraz horixe bera egin dugu guk, gure proiektua zertan datzan azalduz eta gurekin lan egiteko prest egongo diren galdetuz.



Bezeroekin harremanetan mantentzeko webgunea guk sortu dugu eta baita guk ere mantenduko dugu, *Jimdo Free* zerbitzuaren laguntzari esker.

JIMDO

Gure saskiak Argentinara bidali ahal izateko enpresa desberdinak begiratzen eta hauei buruzko informazio ugari bilatzen ibili gara egokienarekin topo egiteko, adibidez, *Correos, Nacex, Mensajería Low Cost, GLS, Secur, MRW*, etab.; baina guzti hauetatik *Mensajería Low Cost* enpresarekin bat egitea erabaki dugu; alabaina, beste guztiak nahiz eta kalitate oso altuagatik famatuak izan, oso garestiak ere badira; beraz gure enpresarekin hasteko, ahal diren gastu posible guztiak ekidin behar ditugu. Hala eta guztiz ere, aukeratutako hau merkataritza elektronikoan, bidaietan eta web garapenetan adituak diren talde batek garatutako mezularitzako eta paketeriako enpresetako bilaketa-tresna bat da, non Hego Amerikarainoko bidalketa internazionalak ere egiten dituzte. Hori gutxi balitz, hauekin harremanetan jarri eta gero, ez dizkigute inolako trabarik jarri.



Saskiak muntatu ahal izateko lokal bat behar genuenez, *Uggasa* agentziarekin kontaktuan jarri gara eta hauek lana erraztu digute, leku bat utziz 30€ren truke. Alokairuaren barnean argindarra, wifia etb. sartzen zaigu. Beraz, lokala errentan hartzen aurretzen dugun dirua gure enpresa aurrera eramateko erabiliko dugu.



Horrez gain, Laboral Kutxari mailegu bat eskatuko diogu 2.000€koa. Alde batetik, hasieran produktuak erosi ahal izateko, eta bestetik, alokairua ordaintzeko. Behin gure enpresa martxan dagoenean eta gure diru-iturriak konstante mantentzen hasten direnean, mailegua ordainduko ditugu baita honen %2,5ko interesak ere.



“Blim” proiektua aurrera atera ahal izateko, gure saskietan ipiniko diren produktuak erosteko hainbat enpresarekin jarri ginen harremanetan; izan ere, prezio onenak aukeratzeko aukera guztiak ikusi behar genituen, ondoren batzuk baztertzen

joateko. Prozesu luze honen ondoren, enpresa askok zenbait arazo eta baldintza txarrak jarri zizkigutenez, alde batera utzi genituen, eta Dastatu Basque Country Gourmet eta Aikur enpresak aukeratu genituen, ez zizkigutelako inongo arazorik jarri.

Dastatu Basque Country Gourmet-en behar ditugun produktu guztiak aurki ditzakegu, enpresa bakoitzetik produktu bat hartu beharrean. Dastatu-ren eskaintzaren barruan kalitate-zigilu eta euskal sor-markak nagusiak aurkitu ditzazkegu; aipa dezagun, Idiazabal, Euskal Baserri, Rioja Alavesa... Gainera, hautatu ditugun produktuak egokienak direla iruditzen zaigu, Euskal Herria hoberen irudikatzen dutenak baitira.



Era berean, aukeratutako lehenengo enpresa honetan ezirik ez dutenez, Aikur enpresarekin lan egitea ere erabaki dugu; hain zuzen ere, bertan erlauntzetik zuzenean jasotako eta kalitate ziurtagirien bermea duten produktuak eskaintzen dituztelako; hortaz, beraien funtsezko produktua ezta da. Horretaz gain, Aikur gure herriko enpresa txiki bat denez, aurrera bultzatu nahi dugu, beraien produktuak salduz eta publizitatea eskainiz, beraien gure zerbitzuaren truke prezioak jaitsiko dizkigute, beraz, bi enpresak irabazten aterako ginateke.



Horrez gain, aukeratu ditugun produktuak Eusko Labela daramate, Euskal Herriko produktuak direla baieztatuz eta bitartekariak saihestuz.

